



# RUPER ORDORIKAREN DOINUAK FESTARI EKITEKO

Gaur arratsaldean hasiko dira Alegiako Karmen jaiak; gauerdian izango da Ordorikaren zuzeneko emanaldia 5

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea  
2008-07-15**

VIURTEA 1.486.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Herenegun, Santamaña auzoko jaien baitan egin zuten Kros igoera. A. OTEZABAL

## PATXI URIZAR, LAUGARRENEZ, SANTAMAÑAN LEHENA

**ASTEASU** 28 minutu eta segundo bat behar izan zuten Kros igoera egiteko; emakumezkoetan, Lourdes Oiarzabalek irabazi zuen 2

## Mugika gogoan, bere erailketaren 7. urteurrenean

**LEITZA** Politikari ugari bildu ziren atzoko ekitaldian; Pello Urkiolak bertsoak abestu zituen, eta ondoren, lore eskaintza egin zuten 7

## San Fermin Torneoa irabazi dute Zeberriok eta San Miguelek

**ELDUAIN** 40-23ko emaitzarekin gailendu ziren Ezkurra eta Aizpururen aurkako finalean 6

## Eskualdekoen parte-hartze bikaina Dardo Txapelketan

**TOLOSA** Nesketan, Silvia Monua gailendu zen; mutiletan, Morano eta Mayordomo oso ondo 3

## Itxaso Leunda nagusitu da Barakaldon

**HERNIALDE** Ordu bat, 6 minutu eta 31 segundo behar izan zituen triatloilariak proba amaitzeko 4



**TOLOSA MOTOR, S.A.**

San Esteban Auzoa, 14-A

20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel: 943-850337 Fax: 943-652938

e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**Bipper Berria**





## Eskualdekoek maila ona erakutsi dute I. Dardo Txapelketan

**Kirola** » Nesketan Silvia Moneo tolosarra gailendu da; gizonezkoetan, Morano eta Mayordomo onenen artean sailkatu dira.

**INIGO TERRADILLOS**

Asteburuan dardo jokalarien topaleku izan da Tolosa, izan ere, Beotibar pilotalekuan Euskal Herriko I. Dardo Txapelketa jokatu dute. Euskal Herriko hainbat herritako parte-hartzaileak izan dira bertan, baita eskualdekoak ere, eta maila «bikaina» erakutsi dute; Emakumezkoen mailan, Silvia Moneo Tolosakoa gailendu da, eta gizonezkoetan, Iñaki Mayordomo eta Sergio Morano oso ondo aritu dira.

13 urterekin Silvia Moneo Espainia, Portugal eta Andorrako txapeliduna da, eta asteburuan, Euskal Herriko Txapelketan, barkarkoan, bikoteka eta taldeka lortu du irabazlearen txapela. Marta Iraola izan da bere bikotea.

Sergio Moreno billabonatarrak eta Iñaki Mayordomo ibartarrak, bestalde, txapela lortu dute bikoteka. Ramon Moneo antolatzaileak azaldu bezala, «eskualdean jokalaririk oso onak daudela ikusi dugu, eta horien artean, Morenok maila bikaina erakutsi du, eta hemendik denborabatera ziur onenen artean egongo dela».

Txapelketaren inguruan balan-



Goian Silvia Moneo tolosarra sariarekin. Behean, txapelketaren une bat. HITZA

tze baikorra egin du Moneok: «oso gustura gaude parte-hartzaile kopuruarekin, 160tik gora izan baitira; gainera, dena ondo atera da, eta ez da inolako arazorik egon; laguntzaile ugari izan ditugu, baina eskertzekoa da Gurutze Gorrikoek egin duten lana. Bestalde, datorren urteari begira Tolosako Udaleraren laguntza gehiago izatea ere espero

dugu, gutxienez, behar ditugun baliabideak gure eskura jartzea».

13 urte behar izan dituzte txapelketa antolatzeko, eta aitzindaria izan da, izan ere, dardo makinaren markak egiten zituzten orain arte, beraz, eredugarri izango da beste lurraldeetarako, eta horregatik atzerriatik jende ugari etorri zen Tolosara txapelketa ikustera.



Joxe Gabirondo gazteluarra dago lehen postuan orokorrean. I. AZPIKUEA

## Gabirondotarrak lehen postuan Euskal Herriko I. Segala Ligan

**ERREDAKZIOA**

Asteasuko Santamaña jaien baitan Euskal Herriko Nazioarteko Era-ko I. Segala Ligako laugarren jardunaldia jokatu zuten herenegun. Bertan, gizonezkoetan, Igor Esnaola gailendu zen, eta emakumezkoetan, berriz, Maria Luisa Gabirondo gazteluarra.

Igor Esnaolak 3 minutu eta 21 segundoko denborarekin geratu zen lehena. Eskualdeko lehen gizonezkoa Baliarraingo Jokin Garmendia izan zen; laugarren geratu zen, 3 minutu eta 40 segundoko denborarekin. Bere atzetik Joxe Gabirondo gazteluarra sailkatu

zen, 3 minutu eta 42 segundorekin, eta seigarren Baliarraingo Arkaitz Arteaga, 3 minutu eta 4 minutu eta 13 segundorekin. Sailkapen orokorrean, Joxe Gabirondo dago lehen postuan, Jokin Garmendia 7. eta Arkaitz Arteaga 10. postuan.

**Maria Luisa Gabirondo bikain**

Emakumezkoen mailan, Maria Luisa Gabirondo gazteluarrek maila bikaina erakutsi zuen Asteasun. 2 minutu eta 33 segundoko denbora behar izan zuen amaitzeko, eta lehen postua erdietsi zuen. Orokorrean ere lehen postuan dago, 59 punturekin.

## S Soka motzean

### «Saharako tea botatzen dut faltan hemen nagoenean»

**MOHAMED MOULUD CHEJ**,  
Sahararra

**I. TERRADILLOS**

14 haur saharar etorri dira aurtin uda eskualdean igarotzera. Horietako bat da 11 urteko Mohamed. Leaburuko Gregorio Eizaguireren familiaren etxean dago.

**Aurtengoarekin zenbagarren aldia da etortzen zarena?**

Laugarren aldia. Tolosaldeaz gain, Idiazabalen eta Urnietan ere egona naiz.

**Zer egitea gustatzen zaizu gehien hemen?**

Igerilekura joatea. Orain Nafarroako kanpin batera joango naiz nire hengo familiarekin, eta hori ere gustatzen zait.

**Eta gutxienez?**

Mendia, esaterako, ez zait gehiegi gustatzen.

**Janariari dagokionez, zein da zure gustukoena?**

Oilasko saltxitak.

**Eta zer da saharar kanpamentuetatik faltan botatzen duzun hori?**

Tea botatzen dut faltan.

**Zer izan nahi duzu handia zarenean?**

Soldadu.

**Datorren urtean ere berriro Tolosaldera itzuliko al zara?**

Ez, autengoa nire azken bidaia izango da, adinagatik ezingo baitut berriro itzuli proiektu honekin. Eta horrek pena handia ematen dit.



N. URBIZU

## Paleta Txapelketako kanporaketekin aurrera

**ERREDAKZIOA**

Pasa den ostegunean ekin zion Tolosa CFk antolatutako 40. Paleta Txapelketak. Aste honetan kanporaketekin jarraituko dute, eta hala izango da hilaren 23ra arte. Kanporaketa horietan izaten diren emaitzen arabera joango dira sailkatzen aurrera egiteko 10 bikote parte-hartzaileak. Gaur Artola-Agirrek Arostegi-Za-

balaren aurkako lehia izango da lehendabizi, eta ondoren, Lontxo-Nazabal eta Karrera-Izagireren arteko partida izango da. Biharkoari dagokionez, Karrera-Izagirrek Zubillaga-Elorzaren aurka egingo dute, eta ondoren, Apeztegia-Maiza eta Yugueros-Aldazabalen arteko norgehiagoka izango da.

Berazubiko frontoian izango dira partidak, 19:00etatik aurrera.

Tolosaldeko komunikabide batek  
**Kazetaritzan edota  
Euskal Filologian  
lizentziatuak  
edo ikasleak behar ditu  
lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **661 67 88 17** telefono zenbakira

# Erauskinek jarraituko du Joxean Tolosan

**Amezketak** » Eskualdeko Artola, Erauskin eta Beloki aritu dira asteburu honetan: Altxokoak 18-10 irabazi zion Punpari.

## ERREDAKZIOA

Amezketan asteburu honetan ostiralez eta igandez jokatu dira XIX. Joxean Tolosa Txapelketako partida guztiak. Larunbatean, besteak beste, Herri Arteko Pilota Txapelketako final handiak jokatu ziren eta horregatik aldaketak eman zituen egutegian.

Hauek izan dira emaitzak: osti-



Joxean Tolosa Txapelketa duela bi aste hasi zen. A. IMAZ

ralean, gazteen artean, Biain 18, Oiarzabal 11; Iraola (Valenciaren orde) 11, Lertxundi 18. Nagusien artean, Agirre 12, Muguruza 18, eta Artola (Altxokoa) 1, Uharte 18.

## Txapelketako norgehiagokak larunbatero jokatu dira hemendik aurrera

Igandeko partidetan, berriz, lau partidetak emaitzak hauek izan ziren: gazteen artean Punpa 10, Erauskin (Altxokoa) 18; Alustiza 18, Mindegia 12. Beraz, eskualdeko Erauskin gero ere ariko da txapel-

ketan, irabazi ondoren. Nagusien bi norgehiagoka izan ziren ondoren, eta honakoan amezketar bat aritu zen baina ez du aurrera egingo, galdu egin baitzuen 18-14 San Sebastianen kontra.

Esnaola eta Senaren artekoan gipuzkoarrak irabazi zuen 18-6. Beraz, irabazi duten guztiak beste batean ere ariko dira txapelketa honen baitan.

## Hemendik aurrera larunbatero

Joxean Tolosa Txapelketako norgehiagokak larunbatero jokatu dira hemendik aurrera, beti bezala. Batzuk arratsaldean, eta besteak 22:00ak aldera, hain zuzen.

# Itsaso Leundak Barakaldoko triatloia irabazi du

**Hernialde** » Orubete, 6 minutu eta 31 segundo behar izan zituen; Euskal Herriko zirkuitarako puntuagarria zen proba.

## ERREDAKZIOA

Herenegun goizean Barakaldoko triatloia jokatu zuten eta lehenengo emakumezkoa Itsaso Leunda izan zen. Hernialdekoak orubete, 6 minutu eta 31 segundo behar izan zituen zirkuitoa betetzeko eta marka honekin lortu zuen emakumezko azkarrena izatea. Hain zuzen ere, sprint distantziakoa izan zen Barakaldoko proba (750 metro- 19,5 kilometro - 5 kilometro).

Bigarren sailkatuak, Maider Vallinak, hernialdetarrak baino bi minutu eta 25 segundo gehiago behar izan zituen helmugaratzeko (1 ordu, 08 minutu, 56 segundo); hirugarren postuan, Nerea Ubeda sailkatu zen, orubete, 11 minutu eta 14 segundoko denbora bete zuelarik.

Barakaldoko proba Euskal Herriko zirkuitarako puntuagarria izan zen eta, beste behin ere, Club

## » SAILKAPENA

### Barakaldoko proba Emakumezkoak

1. Itsaso Leunda	1:06:31
2. Maider Vallina	1:08:56
3. Nerea Ubeda	1:11:14

### Gizonezkoak

1. Mikel Elgezabal	57:01
2. Jesus De la Fuente	1:00:30
3. Roberto Corujo	1:00:47

### Taldeak

Garraitz Kirol Taldea

Triatlon Barakaldo taldekoek eta E'TFk (Euskadiko Triatloi Federazioak) antolatuta zuten.

### Lehen gizonetako, orubete azpitik

Lehen gizonetako Mikel Elgezabal izan zen eta orubete azpitik sailkatzea lortu zuen. Hain zuzen ere, 57 minutu eta segundo 1 behar izan zituen kirolariak proba amaitzeko.

Zilarra Jesus De la Fuente triatloilariarentzat izan zen, hiru minutu eta 29 segundo beranduago heldu zelarik (1:00:30) helmugara.

Hirugarren postua, berriz, Roberto Corujorentzat izan zen. Azken honek 1: 00:47ko marka lortu zuen, bigarren sailkatuak baino 17 segundo gehiago baino ez zituen behar izan.

Taldeko sailkapenean, berriz, lekeitiarra den Garraitz Kirol Taldea izan zen garaile bi maila ezberdinetan, emakumezkoetan nahiz gizonetakoetan. Hain zuzen ere, talde honetan aritzen da Itsaso Leunda triatleta.

### Leunda, goi mailan azken probetan

Triatloilariarentzat sasoi gogorra izan ohi da udakoa, probatik proba dabilta-eta Euskal Herriko txoko ezberdinetan. Goi postuetan egotea zaila izaten da baina lehen postuetan sailkatzea ohikoa bilakatu da dagoeneko Itsaso Leunda hernialdetarrentzat.

Pasa den astean bigarren postua lortu zuen Zumaia Kirol Taldeko triatloian eta pasa den ekainean Ondarruko triatloian ere hirugarren postuan sailkatu zen. Oraingoan urrezko domina berarentzat izan da, oso maila onean dagoela erakutsi duelarik.

# Sanblaspioko Gazte Asanbladak dantza ikastaroa antolatu du

**Tolosa** » Udaberri dantza taldeko bi dantzari ariko dira irakasle lanetan; bihar egingo dute lehen saioa Otsabi gazte lokalean.

## ERREDAKZIOA

Sanblaspioko Gazte Asanblada dantza ikastaroa antolatu du udako asteazkenetarako. Iaz ere antolatu zuten ikastaroa eta bertan izandako arrakastari eutsiz, aurtengoan ere antolteza erabaki dute.

Bihar emango diote hasiera eta

ikastaro honetan parte hartzen dutenek arin-arina eta fandangoa dantzatzeko ikasiko dute. Asteazkeneko izango da ikastaroa, Otsabi gazte lokalean, 11:30etik 13:00etara. «Udaberri Dantza Taldearen laguntza behar beharrezkoa izan da», adierazi dute asanbladakoek; hala, irakasle moduan bertako bi kide ariko dira. Nahi duen guztiak har dezake parte bertan.

## «Giro bikaina izango da»

Helburua, dantza ikastea gain noski, «giro bikaina lortzea eta ia bezain ondo pasatzea» izango dela aitortu dute asanbladako kideek.

## Laburrak

### Herri antzerkiak eta dantza sokaz hitz egiteko bilera

**ANOETA** » Gaur bilera egingo dute udaletxean herri antzerkiak eta dantza sokaz hitz egiteko, 19:00etan. Herriko taldeei eta interresaturik dagoen orori bertan parte hartzeko deia egin diete.

### Pirinioetara irteera antolatu du Alpino Uzturrek

**TOLOSA** » Alpino Uzturre mendi elkarrekin Pirinioetara mendi irteera antolatu du hilaren 25etik 27ra bitarte, Palas (2.974 m) eta Lurien (2.826 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean egin daiteke.

txokoa h

2 pertsonentzako  
piragua eskolan ikastaroa

zozketan, deitu eta eskuratu

Txaraman abuztuaren 18-23ko astean goizez



**KAXKARDI**  
KIROL ERREKREATIBO ELKARTEA  
kaxkardi@hotmail.com

# Gaur, jaien lehen egunean Ruper Ordorika ariko da



Ruper Ordorika gaur Alegian ariko da, plazan; irudian, Jon Piris kontrabaxu-jotzailearekin. HITZA

**Alegia** » 18:00etan hasiko dira karmenak; dantzariak, erraldoiak, zahagiardoa eta elkarretaratzea izango dira, beste askoren artean.

**NEREA URBIZU**

Asteburu mugituaren ondoren gaur arratsaldean helduko diete Alegiako festei, karmenei. Egitarau zabalba prestatu dute aurten ere Alegian, eta gaurko eskaintzarik erakargarrienen artean Ruper Ordorikaren kontzertua da, plazan (eguraldi txarra eginez gero Kultur Etxean). 00:00etatik aurrera hasiko da oñatiarraren saioa, euskal musikari berritzaile eta internazionalenetakoa dena, hala rock eta pop musikan nola beste estilo batzuetan.

Esan bezala, festak arratsaldean hasiko dira eta Ruper Ordorikaren aurretik adin guzientzako ekitaldiak daude: hasteko, 17:30ean udal-letxeko arkupeetan kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa eta Ordiziako erraldoi eta buruhandiak eta Giroarte dultzaina taldea, kalejiran. Hauek Larraitz auzotik abiatu dira, plaza aldera. 18:00etan, berriz, *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean elkarretaratzea egingo dute udal-letxean eta ondoren, han bertan, An-

tonita Iriartek festetako hasiera iragarriko du Txintxarriaren egoerarekin.

Ez da aurtan faltako Txintxarriek elizan abesten duten *Salvea*. Jarraian, kontzertua eskainiko dute 20:00etan. Kontzertu honen ondoren, zahagiardoa izango da plazan, 21:00ak aldera. Herritarrek behin asetuta, Alurr dantza taldearen emanaldiaz gozatu ahal izango da pilotalekuan 22:30etik aurrera.

**Ruper Ordorikari buruz, hainbat datu**

Gasteizen gaztaroko urte batzuk eman ondoren, Bilbon ibili zen unibertsitateko ikasle Ruper Ordorika. Garai hartan Pott Banda literatur taldearen partaide izan zen (1977-1980), Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionandiarekin batera, bestek beste. Beste musikari batzuk, urte haietan kutsu politikodun kantuak hobesten zituzten bitartean (Euskal Rock Erradikalaren garaiak ziren), Ordorikaren orduko eskaintza ausart eta berri-tzailea nabarmendu zen, letra barneki eta landuak eskainiz.

New Yorken beste egonaldi bat egin eta gero, Hiru Truku folk taldea osatu zuen 1994an; Joseba Tapia eta Bixente Martinezekin batera, euskal tradizioko kantuak oinarri hartu eta folk britaniarraren

moldeen arabera egokitu dituzte, berezko estilo berezi batez.

Hurrengo diskoak New Yorken ezagututako lagun batzuekin grabatzen hasi zen. Bi disko-bilduma kaleratu ditu bere bizitza artistikoa zehar. Halaber, 2000. urtean grabatu zuen bere lehenengo zuzeneko diskoa, *Gaur*.

**Aurten ere Txintxarri**

Dena prest dute Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartekoek biharko kontzerturako. Gaur kontzertua

**Txintxarriek 'Salve'-a abestuko dute elizan; jarraian kontzertua ere eskainiko dute**

**Ordorika oñatiarraren saioak rock eta pop musika zein beste estiloak uztartuko ditu**

eskainiko dute 20:00etan San Joan Bataiatzailearen elizan, urterto bezala. Aurretik, 19:45ean Pedro Joxe Iguainen *Salve Regina* abestuko dute.

Txintxarri Txikikoek abestuko dute lehenbizi. Hiru abesti eskainiko dituzte: euskaraz eta ingelesez. Aitor Iraolak lagunduko du pianoan.

Helduen abesbatzak, berriz, zortzi abesti kantatuko ditu: kan-tu-sorta anitza hautatu dute Karmenentarako. Euskal doinuak eskainiko dituzte, Ipar Irlandako bat eta Xabier Sarasolaren *Ave Maria* kantua bertsioa entzun ahal izango da. Bestelako kolorea emango dio *El abanico* habanera-  
rak.

Saioari amaiera biribila emateko, bi abesbatzek elkarrekin abestuko dute.

# Leire Olaberriak bigarren egin du Italiako probetan

**Ikaztegieta** » Pekingo Olinpiar Jokoetan izango dituen arerioak han izan ziren. Deshidratazio txiki bat ere izan zuen.

**N. URBIZU**

Pekingo Olinpiar Jokoei begira dago Leire Olaberria, baina aurretik, Italian izan da proba batzuk egiten eta bere burua neurtzen. Ostegunetik larubatera bitarte izan zen bertan eta Cespa-Euskadiko txirrindulari ikaztegiatarra bigarren izan zen sailkapen nagusian. Izan ere, hiruro egunen baitan bi proba egin ditu egunero eta hori izan da azken emaitza, bigarren, hain zuzen.

Italiako probetako irabazlea Lesya Kalitovska ukrainiarra izan da: bide batez, esan, Kalitovska Olaberriaren aurkaria izango dela Pekinen ere.

**Jardunaldiz jardunaldi**

Osteguneko arratsaldean hasi ziren probak Italian eta hitzari adierazi bezala, bertan, Olinpiar Jokoei ariko ziren emakumeekin lehiatuko zen. Scratch proban lehena izan zen eta puntuazioko

proban, berriz, bigarren. Honela, lider izatea lortu zuen.

Ostiraletan, aldiz, beroaren ondorioz (38 gradu) Leire Olaberria deshidratatu egin zen une batez eta horregatik, ez zuen liderrgoa mantendu ahal izan eta ukrainiarren eskutan bukatu zuen.

Hirugarren jardunaldirako Olaberria errekuperatu egin zen eta hala atera zen pista gainera. Hala, hirugarren bukatu zuen eguneko bi probetan. Honela, bigarren postua irabazi zuen sailkapen orokorrean.

**Olaberria «poziko»**

Proba bukatu ondoren «pozik» agertu zen Olaberria. «Bigarren eguneko lehen proba egin ninduen neure errendimenduak, bero-erregatik seguraski baina azkeneko jardunaldian berriz indar berrituta aterantz».

Arerioei dagokionez zera adierazi zuen: «Arerioen artean, Machakova eta batez ere Kalitovska oso azkar zihozaten, baina nik haien mailan borrokatu eta lan egin dut; Olinpiar Jokoei begira baikor naiz, hila baina gutxiago falta da eta pozik nago nire mailarekin. Orain lanean jarraitu behar dut...»



Leire Olaberria abuztuaren 6an joango da Pekinera. N. URBIZU

**» GAURKO EGITARAUAK**

**Egitarau ofiziala**

- 09:00. Txistularien eta trikitilarien diana.
- 09:30. Giroarte dultzaina taldea.
- 11:15. Meza nagusia.
- 12:30. Alegiako dantzariak.
- 12:30. Incansables txaranga.
- 16:30. Zappie pasa txapelketako finalak frontoian.

- 17:30. Konpartsa herrikoia.
- 22:30. Konpartsa herrikoiairen emanaldia plazan.

**Egitarau alternatiboa**

- 19:00. Txupinazoa eta sagardo probaketa.
- Ondoren. Zahagiardoa.
- Gauean. Trikitixa Laketekin.

**Tolosako Udala**  
**IRAGARKIA**

Tolosako Udalbatzak, 2008ko uztailearen 1ean egindako bilera, hasierako onspena eman zion Muiña Fundazioaren jabetzak terrenean gainean eta Tolosako Plan Orokor berriaren testuingurutan terrene haren hirigintza garapenerako buruzko hirigintza hitzarmenaren proposamenari,

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Cehigarriko 8. apartatuaren arabera, espediente 20 egun egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri haur argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espediente Tolosako Udaltxeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrea Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epaialdiaren barruan.

Tolosan 2008eko uztailearen 9an  
ALKATEA

**Tolosako Udala**  
**IRAGARKIA**

Tolosako Gobernu Batzarak, 2008ko uztailearen 7an egindako bilera, hasierako onspena eman zion Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorrean jasotako "26 Olarriain" eremuari buruzko Hirigintza Hitzarmenaren proposamenari,

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Zazpigarren Xedapen Cehigarriko 8. apartatuaren arabera, espediente 20 egun egongo da jendaurrean jarrita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri haur argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesaturik daudenek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espediente Tolosako Udaltxeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Sarrea Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, Udaleko alkate-lehendakariari zuzenduta.

Hitzarmena behin betiko onartutaz joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epaialdiaren barruan.

Tolosan 2008eko uztailearen 9an  
ALKATEA



San Fermin Torneoko finalistak; txapelarekin Patxi Zeberio eta Julen San Miguel. JOSEBA ZABALZA

## Patxi Zeberio eta Julen San Miguel San Fermin 2008 Torneoko txapeldunak

**Elduain** » Txapeldunek finalean Ezkurra-Aizpuru gaitzitu zituzten 40-23ko emaitzarekin Aizpurren azken partidari.

### ASIER IMAZ

Patxi Zeberio erremontistak txapela berri bat jantzi zuen iragan larunbatean Huarten. Julen San Miguel lagun zuela, elduaindarrak Binakako San Fermin Torneo 2008 irabazi zuen (40-23) Ezkurra eta Aizpurren aurka.

Peio Aizpurren agurreko partida izan zen Sandua Olioak edo San Fermin Torneoko finala. 25 urte erremontean aritu ondoren, larunbatean jokatu zuen profesional bezala azken partida. Finala galdu arren txalo zaparradaz agurtu zuten Huarteko Euskal Jai Berriin bildutako 500 bat pilotazaleek Aizpuru.

**Txapelketa guztian nagusi** Zeberio II.ak eta San Miguelek San Fermin Torneon jokatu dituzten lau partidak erraz irabazi dituzte, markagailua kontutan hartuz gero: ligaxkako bi partidak

aise irabazi zituzten (40-20 eta 40-16). Finalerdietan 40-26 irabazi zuten eta finalean 40-23.

Azken neurketan Ezkurra gogor hasi zen. Sendotasunez partidari erritmo bizia jarri zion aurrelariak eta markagailua (10-11) parean ibili zen lehen tantuetan. Julen San Miguel eta Patxi Zeberio pilota atzean jartzen hasi ziren ondoren, alde batetik Ezkurra jokoan sar ez zedin eta bestaldekik Aizpuru estu hartzeko asmoz. Binakain irten zitzaizen jokaldia eta markagailuan ihes egin zuten (10-

17, 12-27 eta 15-35). San Miguel indartsu eta Zeberio II.a aukerako pilotekin asmatzen ari zirela, 40. tantura iritsi ziren.

### «Torneo biribila irten zaigu»

Txapela buruan zuela «gustura» agertu zen Patxi Zeberio aldageletan: «Ezkurra gaitzitzen asmatu dugu eta atzean ibili dugu pilota. Aukerako pilotak ongi aprobetxatu ditugu eta dena irten zaigu. Oso ongi moldatu nahiz San Miguelek eta Torneo borobila irten zaigu bioi».



25 urteren ostean Peio Aizpuru azken partida jokatu zuen Huarten. J. ZABALZA



Alurr Dantza Taldeko kideak Eslobeniari irten aurretik ekainaren 27an. HITZA

## Alurr Dantza Taldea Eslobeniatik itzulera ekitalditik ekitaldira

**Ibarra** » Gaur Alegian eskainiko dute emanaldia 22:30ean eta asteburuan Ezpeletara joango dira Gau Argi Jaialdira.

### A. IMAZ

Alurr Dantza Taldeko kideak Eslobeniatik itzuli eta emanaldi berriak prestatzen ari dira atseten hartzeko denborarik gabe.

Gaur Alegian eskainiko dute emanaldia 22:30ean eta asteburuan Ezpeletara (Lapurdi) joango dira.

### «Esperientzia positiboa»

Eslobenian bizitako esperientzia «positiboa» izan dela azaldu dute taldeko arduradunek: «Nazioarteko beste kulturak ezagutzeko aukera izateaz gain, Euskal Herriaren eta Ibarrenaren izena ezagutzera

emateko aukera izan dugu bertan, euskal dantza tradizionalak eskainiz. Azken egunean euskaraz hitz egiteko aukera ere izan genuen, dantza talde ezberdinek batera egin zuten dantzaren aurkezpena. Gazteentzat ere jendea ezagutzeko aukera polita izan da, irteera bateratuak eta abar egiteko aukera izan baitute».

### Alurren egutegia

Ekainaren 27an irten ziren Eslobeniari eta uztailearen 7an iritsi ziren Ibarra. Arropak zintzilik jartzeko aukerarik gabe, gaur Alegian eskainiko dute emanaldia. Uztailearen 19an, larunbatean, Ezpeletara joango dira Gau Argi jaialdian parte hartzera. Abuztuaren 9an Tafallan (Nafarroa) eskainiko dute emanaldia eta abuztuaren 11n Berastegin, herriko jaien barnean. Ibarren ere sanbartolomeetan ari tuko dira abuztuaren 22an.

## Laburrak

### Festa Batzordearen bilkura bihar 20:00etan

**IBARRA** » Ibarra Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaien antolaketaarako Festa Batzordearen bilkurara deitu du bihar 20:00etarako. Udal Pleno Aretoran egingo dute batzarra.

### Oporretako argazki lehiaketa antolatu dute

**ELDUAIN** » Udalak oporretako argazki lehiaketa antolatu du. Iribazlearen izena herriko festetan esango dute eta parte hartzeko argazkiak abuztuaren 29a baino lehen bidali behar dira udaletxera.

## Hilberria

### JULIAN LAVADO MARTIN

(Herenegun hil zen, Irunen)

Eskerrik asko zure ametsengatik



Karmen go Ama Ikastetxe  
Ikas Komunitatea

TRINTXERPEN  
2008ko  
uztailearen 15a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Anoeta.** Bilera egingo da udal-  
txean herri antzerkiak eta dantza-  
sokaz hitz egiteko. Dei egiten zaie  
herriko taldeei eta interesaturik  
dagoen orori bertan parte hartze-  
ra. Bilera 19:00etan izango da uda-  
letxean.

■ **Alegia.** Festak diren bitartean  
autobus geltoki bakarra Larraitz  
aiztondo izango da, kaleak libre be-  
har baitituzte. Beraz, hilaren 15eko  
arratsaldetik hilaren 20a bitartean  
(igandea, egun hau ere barne) au-  
tobus geltoki bakarra izango da  
herrian.

■ **Tolosa.** Tolargik eta Tolosagasa-  
k 2009 urteko Tolosako egutegia  
osatzeko argazki lehiaketa jarri  
dute abian *Tolosa eta bere jaiak*  
gaiaz. Argazki lehiaketan parte  
hartu nahi dutenek nahi adina ar-  
gazki aurkeztu ahal izango dituzte  
Tolargiren egoitzan.

### Kirola

■ **Tolosa.** Pirinioetara mendi irtee-  
ra antolatatu du Alpinu Uzturre el-  
karreak, hilaren 25etik 27ra, Palas  
(2.974 m) eta Lurien (2.826 m)  
mendiak igoz. Izen-ematea, elkar-  
tean.

### Ikastaroak

■ **Tolosa.** Piraguisimo ikastaroak  
antolatatu ditu Kaxkardi Kultur El-  
karreak Txaraman, egun bateko ir-  
teerak edo aste osoko ikastaroak.  
Izen-ematea, 636 638635 eta 677  
488910 telefonoetan. 8 urtetik go-  
rakoentzat. Iraila bitarte.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernika-  
ko arbola, 3. 943 651040.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar  
kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen  
egunkariaren adierazitako esanien  
eta iritzien erantzunik.



## Tolosa ere «busti da»

**TOLOSA** «Busti zaitez» kanpaina, Esklerosi Anizkoitzaren aldekoa, Euskal Herriko herriak ari da bisitatzen eta gurera ere heldu zen herenegun. Hain zuzen, Usabal kiroldegia aukeratu zuten horretarako gune, eta bertan hainbat ekintza egin eta gaixotasunari buruzko informazioa banatu zuten. Esklerosi Anizkoitza Fundazioak, AEMGren laguntzarekin, anto-

latutako jardunaldi solidario honen helburua, gizartea sentsibilizatu eta gaixotasun neurologiko honek sortarazten dituen arazoez informatzeaz gain, ADEMGik 2007ko maiatzean ireki zuen Esklerosi Anizkoitza eta beste gaixotasun neurologikoen zentroan gaixoei eskaintzen dien birgaitze zerbitzua finantzatzeko dirua lortzea da. ANDER OTEZABAL

## A Agurrak



**Urte askoan!**

**Zorionak Mikel.** Gaur 4 urte.  
Zure familiaren partetik izugarri  
pasa eguna.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak





**hitza**  
elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat

**Harpidedunentzat**  
**%25**  
merkeago

Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**



